

# B

BARREN

TOKIKOM

A woman with short blonde hair and glasses, wearing a dark grey sweater and blue jeans, stands in front of a stone building. She is leaning on a stone wall to her right. The building has a balcony with a black metal railing and a large arched doorway. The scene is outdoors with a gravel path and some plants.

# “Eskerrik asko Elgoibarko herriari”

Maritxu Loiola Aubixakoa



ARTISAU-OGIA  
EGUR-LABEAN  
EGINDAKOA

KONTSERBAK  
ETA ARDOA

**HELBIDE BERRIA!**

San Bartolome 30, Tel.: 680 724 060  
Plaza txikitik ere badu sarrera!  
[ibarrenea@hotmail.es](mailto:ibarrenea@hotmail.es)



Udazken Festa

HH2/LH2

Urriaren 19an, zapatuan  
11:30ean, Kalegoen Plazan



## Natur zientziengatik, topa!



Ez gara gutxi Euskal Herrian naturarekin erlazio zuzena duten gaiak lantzen ditugun pertsonak. Ikerlariak, boluntarioak, irakasleak, teknikariak, amateurrak, ikasleak...

Naturzale eta sarak elkartzen gaitu guztiok teorikoki; gutxitan –noizbait?– elkartzen gara, ordea, fisikoki. Aipatutako komunitate horien arteko harremana apenas existitzen den: informazio trukea oso txikia da, eta are txikiagoa lankidetzat.

Horrexegatik antolatu dugu Udako Euskal Unibertsitateko kideok Natur Zientzien I. Topaketa. Azaroaren 9an eta 10ean izango da Donostiako Eureka! Zientzia Museoan, eta naturzale euskaldunon

topagune izatea du helburu. Hitzaldiak, mahai-ingurua eta poster-saioa izango dira bi egunotan, eta naturarekin, zientziarekin eta euskararekin zerikusi zuzena duten gaiak jorratuko dira. Parte hartuko dute, besteak beste: ikerlariak, teknikariak, abeltzainak, irakasleak eta dibulgatzaileak, hainbat gai perspektiba ezberdinetatik lantzeko helburuarekin.

Elgoibarren ezagutzen dut naturzalerik, ez gutxi gainera, eta ziur nago nire orbitatik at dauden asko ere bazaudetela. Zuek guztiak animatu nahi zaituztet, izan irakasle, gazte, teknikari, edadetu edo perretxikozale, Natur Zientzien I. Topaketan parte hartzera, hiru arrazoi nagusigatik: publiko guztiarentzat ulergarriak eta interesgarriak izango diren gaiak landuko direlako, elkar ezagutzeko aukera izango dugulako eta norberaren lanak/proiektuak/ideiak zabaltzeko aukera izango delako. Laugarren bat: igandean bazkari eder batekin amaituko da topaketa. Inork ez dezala bere burua egitasmotatik kanpo ikusi. Natura, zientzia eta euskaragatik, topa!

Interesa duen edonorentzat:  
[www.naturzientzientopaketa.info](http://www.naturzientzientopaketa.info)

Antton Alberdi

“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetari:  
943 744 112 edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

**“Elgoibarren ezagutzen dut naturzalerik, ez gutxi gainera, eta ziur nire orbitatik at dauden asko ere bazaudetela. Zuek guztiak animatu nahi zaituztet”**

ESKAINITZA  
BEREZIA



**8 Kg.**

**479€**

SIEMENS garbigailua  
WM12Q463EE  
8 kg.  
1200 Rev.  
A+++



**32"**

**249€**

HISENSE telebista  
32"  
HD-Ready  
Barnean handiko LTD-a  
USB eta HDMI



**439€**

SIEMENS INDUZIO plaka  
EH631BC18E  
3 Indukzio-gune (easy touch)  
Indukzio gune handiena 20 cm-koa da


MILAR

BIRE

Ubitarte 11  
943 741 487  
[bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 744 112 - Faxe: ☎ 943 743 704  
E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
Publizitatea: ☎ 943 743 704  
E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA**, **ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

**KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi  
**KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia  
**HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia  
**PUBLIZITATEA** Leire Rubio  
**MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz  
**MAKETAREN DISEINUA** Jaione Unanue  
**KOLABORATZAILEAK** Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sariugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi  
**INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale  
**LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50  
KULTUR ELKARTEA

## Laguntzaileak:



elgoibar  
bizi bizia



Gipuzkoako Foru Aldundia



## ■ GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Eskerrik asko

Arnaldo askatu herri ekimenetik eskerrak eman nahi dizkizuegu larunbateko manifestaldi arrakastatsura azaldu eta zuen bultzada adierazi zeniguten herritar guztioi. Pentsamendu anitzeko jendea bildu ginen Arnaldo eta *Bateragune auziko* espetxeratuak askatasuna aldarrikatzeko eta baita ere bakearen eta demokraziaren bidean urratsak eman daitezen exijitzeko.

Estatu atzeratu eta atzerakoi honen alde-tik horrenbeste bidegabekeri, espetxeratze eta atxiloketaz gain, joera zapaltzailea areagotzen ari den garai hauetan, kalera irtetea da herritarrok daukagun irteera bakanetako bat, bizi dugun egoera salatu eta gizarteratu ahal izateko, eta halaber, gure ordezkari den klase politikoari bakearen bidean apustu ausartak eta sendoak eman ditzan eskatzeko.

Eskerrik asko bihotzez!

**Arnaldo Askatu Politika Askatu Herri Ekimena** ☞

### Vacuna!

Dantza latino eta afrikarrak gustuko ditugunok sekulako aukera izan genuen duela bi aste Elgoibarren. Punta-puntako irakasleak etorri zitzaizkigun, eta gogotik mugitu genuen gerrialdea. Lagun-giro ederrean igaro genuen asteburua, dantza eta dantza, gehien gustatzen zaiguna egiten. Zenbat izerdi eta zenbat barre! Era honetako jaialdirik ez geneukan aurrez Gipuzkoan, eta Elgoibarren maila honetako zerbait antolatzea benetan pozgarria izan da guretzat. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu salsoteka hau antolatzeke arduratzen zuten euren gain hartu duten Karmel Leon eta Ruth Badiolari. Itzela izan da, benetan. Jaialdi oso-oso izan da. Lan izugarria hartu duzue hau guztia antolatzen, baina merezi izan du. Ala? Gure ustez, bai behintzat. Mila esker, bihotz-bihotzez, zuen klaseko ikasle zoroen partez. Ostegunean Gabaz-en ikusiko dugu elkar. Vacuna!

**Gabaz-eko dantza ikasleak** ☞

### Sigmako Eskolako esker ona

Uztailaren 25ean egin genuen Sigmako eskolako ikasle ohien eta jubilatuen bazkaria.

Egun zoragarria izan zen, eta eskerrak eman nahi dizkiegu modu batera edo bestera, antolatzen eta gauzatzen lagundu ziguten guztioi: Elgoibarko Udala, Aintzane Larreategi eta berarekin izan ziren txistulari eta dantzari gazteak, Kaiser, Casa Astigarraga, Juan Ignazio Ibarluzea (Kani), Aitor Zabala, **BARREN**...

Era berean, mila esker mezetan, luntxean edota bazkaltzen egon ziren guztioi. Guztion arteko adiskidetasunari esker lortu genuen benetan egun zoragarria izatea.


Oporrak direla eta, berandu xamar gabil-tza eskerrak ematen, baina barkatuko diguzuelakoan, mila esker guztioi.

**Sigmako Eskola Batzordea** ☞

## OHARRA

Urriaren 25a jai dela eta, datorren asteko alea egunean argitaratuko dugu. Ale horretan zerbait argitaratu nahi izanez gero, **martitzen eguerdirako** ekarri edo bidali beharko duzue **BARREN**era.

[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)



Mikel  
Olaizola

Danele! Hau bai arraroa, Bartzelonatik Bartzelonara eta bueltan Elgoibarrera idaztea, ezta?

Egia esan, dena zait arraro, berri, desberdin, hemen niri, sekula heritik atera gabeko aldeano honi. Oraindik neurria hartu gabe, hira bizitzen nabil lehenengoz. Sei

errailako kalea eta miloika bidaiariren tren geltokia dauzkatz lehioan; Modelo kartzela historikoa atzean, eta kolore denetako jendea kalean egunero.

Eta hala ere begi bat beti hego-mendebaldera; estrabismo emozionala. Kosta zitzaidan Elgoibartik joatea, ez pentsa! Eta oraindik ere hara lotuta nago askotan: familia, lagunak, dantza, bertso-eskola, gaztetxea... beti berri egarri. Baina distantzia sana da tarteka gauzak ikusteko, ez neutraltasun ilusorioa, baina bai beste perspektiba bat lortzeko. Jarrita nago pentsatzen behin baino gehiagotan herriratzean zer aurkitu nahi nukeen eta zer aurkituko duan. Pasatako Elgoibarko jaiek erakutsi zidaten izan gaitezkeen onena eta txarra. Klimaxa gazteen eguneko poteo-kalejira, marea berdea, sekulako subidoia guztiontzat. Okerrena askoren parte-hartzearen gaineko miopia eta kontsumo esklabista, gaztetxeko barran kaka sentiarazten zaituena. Garenaren ifrentzua eta aurkia.

### “Gazte mugimendu indartsu baten premia gorria sumatu izan dugu askok”

Esperantza asko daukat batzuegan, ia bat ere ez betikoengan. Gazte mugimendu indartsu baten premia gorria sumatu izan dugu askok, baina gero ez dugu asmatzen sarri forma ematen, ez eta jendearen potentziala ekintza bihurtzen ere. Gaztetxe galanta daukagu, margotu berria, ongi ekipatua, norbaitek erabilera emateko zain; jende jator eta langilea ere bai. Poz galanta hartuko nuke bueltan asanblada bizi-bizi batekin topo eginez gero. Egingo dugu apustu? Zuk baduzu esperientzia etxetik kanpo, Danele, urrutitik ikustera ohituago zaude. Igarle saikeran, ze itxura hartzen diozu etorkizunari?



Danele  
Sarrugarte

Zer-nolako gauzak eskatzen dizkidazun Bartzelonatik Bartzelonara, Mikel: itxaropena eta kristalezko bola... zail samarrak, iragartzeko gaitasuna ez baita nire bertuteetatik azpimarragarriena, eta positibo agertzeaz nahiago ezer ez esan. Nago ez dizudala erantzunik emango, nire esperientziatik ateratako ondorioak baizik.

Egia da Elgoibartik kanpo eman ditudala zenbait bolada jada; are, iruditzen zait herriko ezagun askok lotzen nautela kanpoan-bizitze horrekin eta aspaldi ikusi gabekoekin sarritan izaten ditudan elkarrizketa deseroso eta topikoz betetakoetan (bi hizlarien aldetik) batek baino gehiagok ondorioztatzen du automatikoki Elgoibar txiki gelditu zaidala, edo/eta galdetzen dit ea non nabilen orain (bide batez: azken ia bi urteetan gurasoenean).

### “Besteengan esperantzarik izan ezin badezaket ere, eszeptikotasunak ez nau erabat jan”

Askatasun-egarri edo asperdurak itota joan izan naiz, eta ondo hartu naute hiriek, perspektiba zorrotzean (zorrotzegian akaso) begiratu ditut etxeko ajeak; dena dela, aurreikus nezakeenaren kontra, oraindik ez dut toki bat bera ere behin betikotzat jo, eta duela bost urte nekez sinetsiko nukeen arren, irribarrez itzultzen naiz orain gehienetan etxera. Ez ba, Elgoibar ez zait txikiegi gelditu, ez dut uste gauzak horrela neur daitezkeenik. Itotzen ninduten kontuek beti bezain itogarri segitzen dute, baina begiak bai aldatu zaizkit pixka bat.

Sartrek zioen besteak zirela infernua, ni neu ez naiz hain urruti joango. Besteengan esperantzarik ezin izan badezaket ere (are gutxiago betikoengan), esan behar dut eszeptikotasunak ez nauela erabat jan (batez ere marea berdea bezalakoak ikusita). Hori dagoeneko bada sobera nire kasuan. Burura datorkit bion lagun batek maiz esan izan digula “joan lasai eta ondo pasa, baina itzuli gero!”. Eta horrelaxe, basamortua ala oasia topatuko dudan argiegi izan gabe, azkenean beti itzultzen naiz.



II. URTEURRENA

## M<sup>a</sup> CARMEN PEÑALBA ARRIETA

2011ko urriaren 17an hil zen.

“Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan”



# Enpresa eta erakundeentzat baliagarriak izan daitezkeen euskarazko zerbitzu eta esperientziak azalduko dituzte IMHn

Sei hitzaldi, tailer bat eta bi mahai-inguru izango dira asteazkenean

**H**izkuntza-kudeaketa enpresan: 30+10 mintegia antolatu du IMHK asteazkenearako, zortzigarren urtez jarraian. Euskara eta hizkuntzen kudeaketa bera enpresentzat erreminta erabilgarria eta eraginkorra direla erakutsiko dute bertan. Horretarako, sei hitzaldi, tailer bat eta bi mahai-inguru antolatu dituzte. Enpresa, ikastetxe eta erakundeentzat baliagarriak izan daitezkeen zerbitzuen, baliabideen eta esperientzien trukaketa bat izango da, azken batean.

9:00etan hasiko da ekitaldia, Joxean Egaña IMHko zuzendariaren, Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkatearen, eta Zigor Etxeburua Gipuzkoako Euskara Zuzendariaren ongi-etorri hitzaldiekin. Ondoren, Lanbide Heziketa eta euskara gaia landuko dute Ahize eta AEKko ardura-dunek. Estiñe Astorkia Artezeakoak Gasteizko esperientzia bat ekarriko du gero. Bezeroen fidelizaziorako euskarak Gasteizen izan duen balioaz jardungo du Astorkiak. Proiektu berritzaileen berri ere emango dute. Banaiz Bagarako Petra Elserrek, esaterako, lanaren bidez euskara ikasteko aukerez jardungo du, eta Haritz Goikoetxea Emun hizkuntza

zerbitzuko euskara teknikariak enpresetan euskararen ahozko erabilera neurtzeko eta horretan eragiteko bideak azalduko ditu.

## Euskara, markaren osagai

Hizkuntza minorizatua da gurea, eta ingurune eleanitzetan lanean jarduteko ditugun tresnak aurkeztuko dituzte Elhuyar Fundazioko Maddi Etxebarriak eta Igor Leturiak. Horren harira, atzerrian lanean ari diren euskal enpresen esperientziak jardungo dute AFMko Mikel Artolak, Fagor Automotoneko Rafa Aranzabalek eta Ona Electroerosioneko Sergio Ruiz de Larreak mahai-inguruan. Eguneko azkena ere mahai-ingurua izango da. Basque brand edo euskalduntasunaren markaz arituko dira markaren osagai nagusia euskalduntasuna duten enpresetako ordezkariekin. Euskal Herria Esnea, Ternua eta AZK-Taldeko ordezkariak nork bere esperientzia azalduko dute. Argiako kazetari Onintza Iruretak dinamizatutako du saioa. Antolatzaileek jakinarazi dute hitzaldietara joateko aurrez eman behar dela izena, 943 744 132 telefono zenbakira deituta edota [imh@imh.es](mailto:imh@imh.es) helbidera idatzita.

## Correosek enkantean jarriko du Elgoibarren duen etxebizitza bat

Dirua falta duela-eta, ondasunak saltzen dihardu Espainiako Gobernuak. Hego Euskal Herrian 77 higiezin aterako dituzte enkantera 2015a baino lehen, tartean, Correosek Elgoibarren daukan etxebizitza bat. San Inazio kaleko 2. zenbakian dago etxe hori, Correoseko bulegoak dauden eraikin berean. 147,92 metro koadro ditu, egongela, sukaldea, bost logela, hiru bainugela eta bi balkoitan banatuta. Etxearen balioa 225.530 eurokoa da, eta prezio horretan irtengo da enkantera. Azaroaren 21ean egingo dute enkantea. Interesatuak <http://www.subastas.bnpparibas.es/> webgunean aurkituko dituzte xehetasun guztiak.

## Bigarren eskuko bizikleten azoka egingo dute bihar Elgoibarren



Bizikletaren erabilera eta oinezkoen mugikortasuna sustatzeko astea da hau Elgoibarren, eta helburu horrekin hainbat ekintza egin dituzte astean zehar herriko eskola-umeek. Ikastetxera bizikletaz joan dira hiru egunean, eta gaur gaizki apartatutako autoei isunak jartzen jardun dute herrigunean. Bihar, berriz, bigarren eskuko bizikleten azoka antolatu du Udalak Lekuederren, eta herritarrek modu guztietako bizikletak saltzeko edo trukatzeko aukera izango dute. Merkatuan euren bizikletak saldu edo trukean emango dituztenen artean bizikleta bat zozketatuko dute, eta beste bat erosi edo trukatu dituztenen artean. Azokan egongo denaren zerrenda [www.elgoibar.org](http://www.elgoibar.org) helbidean daukazu. Bestalde, Iban Gonzalez Gobike dendako arduradunak bizikletak puntuan jarriko ditu

## Errontonda egingo dute Txankakoan



Errotonda eraikiko dute Txankakoako bidegurutzean. Hala jakinarazi du Rikardo Garate Elgoibarko Udaleko Hirigintza zinegotziak. Gipuzkoako Foru Aldundiak defizita EAeko erakundearen artean banatzeko eskaera egin zion Eusko Jaurlaritzari, eta Gipuzkoaren eskaerak aintzat hartu ditu Jaurlaritzak. Ondorioz, Diputazioak 18 milioi euro gehiago zorpetzeko aukera du orain. Diru kopuru horretatik aterako da, hain justu ere, Txankakoako bidegurutzean errotonda eraikitzeko dirua: 75.000 euro.

Rikardo Garate Elgoibarko Udaleko Hirigintza zinegotziak azaldukoaren araberako, trafiko handia pilatzen den uneetan, ordu puntetan-eta, arazo asko sortzen dira Txankakoako bidegurutzean. "Horregatik jarri behar izaten ditugu bi udaltzain goizetan, trafikoa antolatzeko", azaldu du. 634 errepidean errotonda eraikita, arazo horiek konpontzea badagoela uste du Udalak, eta halaxe jakinarazi zioten bere garaian Gipuzkoako Foru Aldundiari. "Maalako errotonda berritzeko eskaera ere egina daukagu, baina kasu horretan ikerketa bat egin nahi zutela erantzun ziguten Diputaziotik, zatikatutako errotonda ohiko errotonda bihurtzeko dauden aukerak aztertzeko, besteak beste". Emaizta horien zain dauden bitartean iritsi zaie Txankakoako errotonda egiteko baiezkotza. Gaur egun badago biribilgune txiki bat Txankakoako zubiaren parean dagoen bidegurutzean. Errotonda berria, baina, handiago izango da.

## Izena 'Fracking'-a

*Fracking*-ari buruzko bi ekitaldi antolatu ditu Okil Beltzak taldeak datozen egunetarako, horietako bat Ongarri zineklubarekin elkarlanean. Lurrazpiko harkaitzen zulo mikroskopioetan pilatutako gasa ateratzeko teknika da berez *franking*-a eta zeresan handia ematen ari da aspaldian. Interesatuak teknika horren gainean gehiago jakiteko aukera izango dute urriaren 31n eta azaroaren 7an Elgoibarren. Hilaren 31n, *Promise Land* filma emango dute Herriko Antzokian, 21:15ean. Azaroaren 7an, berriz, *Fracking* ez Araba taldekoek *Fracking: apustu ariskutsua* izeneko hitzaldia eskainiko dute Kultur Etxean, 19:00etatik aurrera.

## San Roke auzoko jaietako karretilla, konbenturako

San Roke auzoko jaietan jana-  
riz betetako karretilla zozketatu zu-  
ten, baina saridunik agertu ez de-  
nez, auzotarrek Santa Klarako mo-  
jei eman diete saria.



## Epaiketa "politikoen" kontrako elkarretaratzera deitu dute urriaren 22rako

Gazte talde baten kontrako epaiketa hasi dute aste honetan Espainiako Auzitegi Nazionalean eta laster hasiko da 35/02 auziko epaiketa ere. Hori salatzeko, elkarretaratzea antolatu dute urriaren 22rako. 19:30ean izango da, Kalegoen plazan, *Epaiketa politikorik ez. Libre. Elkartasunetik konpromisora* lelopean. Elkarretaratzean urriaren 30ean Madrilén epaituko duten elgoibartar baten kasua ere azalduko dute. Segi "erakunde terrorista" izendatzea salatzeko A-8 autobidean egindako protesta ekintza bategatik epaituko dute gaztea.

## 'Erresilientzia eta gaitza' tailerra, azaroan

*Erresilientzia eta gaitza* izeneko tailerra antolatu du Defibel Fibromialgia eta astenia kronikodunen Debarrenako elkarteak azarorako. Sortzen diren arazoei aurre egiteko gaitasunari esaten zaio erresilientzia, tragediei, traumei eta estres gogorrari aurre egiteko daukagun gaitasunari. Azaroaren 6, 14, 20 eta 27an egingo dira saiok Elgoibarko Kultur Etxean, 17:00etatik 19:00etara. Ana Perez Lizarraga psikologo eta psikoterapeutak zuzenduko du tailerra.

# ALFREDO ETXEBERRIA

ELGOIBARKO ALKATEA

**“Oztopoak gainditzen  
asmatzen badugu,  
lortuko dugu herri hau  
berradiskidetzea”**

**Bakearen aldeko konferentzian hartu zuten parte joan zen astean munduko hainbat herrialdeetako alkateek, tartean Alfredo Etxeberria Elgoibarkoak. Udalerrietan gatazkak konpontzeko egindako egitasmoen berri eman zuten guztiek, eta Etxeberriak Elgoibarko bizikidetzaren plana azaldu zuen. 2008an hasi zen Elgoibarko Udala alor honetan lanean, eta orduetik gaur arte emandako pausoak eta aurrera begira jarraitu beharreko norabideaz jardun zuen.**

**Bakearen aldeko konferentzian hartu zenuen parte joan zen astean, nazioarteko beste hainbat alkate eta agintarirekin batera. Nola-ko esperientzia izan zen?**

Esperientzia aberasgarria izan zen niretzat, eta oso aberasgarria iruditzen zait ekintza bera ere. Horrelako ariketak egin behar dira, eta saltsa horietan gabiltzanok derrigortuta gaude parte hartzera, ez daukat inongo dudarik. Gainerako herrietan eta herrialdeetan egin diren lanei buruz entzutea oso interesgarria izan zen.

**PSE-EEK ez zuela parte hartuko adierazi zuen, baina Irungo alkateak bere kabuz hartu zuen parte. Zure kasuan izan al zenuen Udal Gobernuaren babesik?**

Pena izan zen konferentziaren bezperetan

Irungo alkatearen parte-hartzeak oihartzun handiagoa izatea konferentziak berak baino. Nire kasuan, Gobernu Batzordetik inork ez zidan ezetzik esan, eta banekien babesarekin nindoala. Alderdian argi geneukan parte hartu behar genuela, horrelako ekintzak beharrezkoak direlako.

**Elgoibarko bizikidetzaren planari buruz hitz egin zenuen. Noiz eta nola hasi zenuten hau guztia?**

2008an hasi ginen bizikidetzaren, gatazka eta biktimen inguruan lanean. Biktimak aipatzen ditudanean bizia kendu dieten guztiak hartzen ditut kontuan. Biktima asko dago, eta giza eskubideen urraketa pertsona askorengan gertatu da, eta horrek eragin handia izan du pertsonengan. Elgoibarren sei

personari kendu zieten bizia, eta horietako bakoitzak bere familia, lana, lagunak, bizitza proiektua... zituen, eta herriari beraien ekarpena egiten zieten. Horregatik, errekonozimendua merezi dute. Sei errealitate desberdin aurkitu nituen. Biktima bakoitzaren senideekin jarri nintzen harremanetan, eta mota guztietako egoerak aurkitu nituen, baina denen eskerrak jaso nituen. Herritarrek gai honi buruzko erreflexioa egitea nahi dugu. Herritarrenganako daukagun gertutasuna aprobeztatu behar dugu, lanerako materiala emanez, norberak gai honi buruz pentsatzeko. Herritarrek kontzientzia hartu behar dute. Gai honetan badago gauza bat ezin duguna egin: ahaztu. Ezin dugu ahaztu gertatu dena, inondik inora.



*Alfredo Etxeberriak komunikabideetan esandakoak lotura hauetan:*

- <http://www.eitb.com/es/audios/detalle/1565896/tres-alcaldes-alfredo-etxeberrria-julen-mendoza-mikel-torres/>

- <http://www.youtube.com/watch?v=XMLLUVXoGS4&sns=em>

- <http://livestre.am/4DQN1>



## **Zein pauso eman dituzue bizikidetzaren planaren marxan jarri zenerenetik?**

Lehenengo legealdian biktimei errekonozimendua egin genien, eta ekitaldi hartan lau balio nabarmendu genituen: bizitzeko eskubidea, elkartasuna, memoria eta sufrimenduaren errekonozimendua. Bigarren legealdian, berriz, herritarrekin ari gara lanean: zinegotziekin, Udaleko langileekin, irakasleekin... Lokarri eta Baketik erakundeekin jarri ginen harremanetan, eurak ere gai honetan lanean ari zirelako. Era berean, tailer batzuk egin genituen herritarrekin, eta aurrera begira bizikidetzari buruzko lan batzorde bat osatzeko asmoa daukagu. Azkenik, oso garrantzitsua da egiten dugun hori guztia herritarren artean zabaltzea. Tailerretara gerturatzen ez diren horiek ere izan dezaten egiten ari garenari buruzko informazioa eta bizikidetzaren inguruan pentsatu dezaten.

## **Nolako erantzuna jaso du bizikidetzaren planak?**

Lau alor landu ditugu: politika, herritarrak, eskolak eta dibulgazioa. Ikastetxeak asko inplikatu dira. Irakasle batzuk formatu genituen. Helburua garbia izan da: hainbat ariketaren bidez, 8 eta 18 urte bitarteko gazteekin lan egitea eta irakasleen lidergoarekin. Herritarren aldetik, partaidetza normala izan da orain arteko tailerretan. Aurrera begira batzorde bat sortu nahi dugu, Udalarekin batera gai hau herri mailan bideratzeko. Batzorde horretan tendentzia eta errealitate desberdinak islatzea nahiko genuke, baina ez da erraza. Herri txiki batean denok eza gutzen dugu elkar, eta hori batzuetan oztopo da. Herri bakoitzak bere errealitatea dauka, eta ez da berdina bizikidetzaren plan bat Elgoibarren edo Errenterian aplikatzea. Hemen sei hildako izan ditugu, eta Errenterian, 15. Hemengo biztanleen gehiengoa abertzalea da, eta Errenterian askoz anitzagoa da biztanlegoa. Mila formatu daude, baina helburua denontzat berbera da. Bakoitzak ikusiko du noraino inplikatu nahi duen edo ahal duen, baina horrelako plan baten kontra ez da inor egongo.

## **Nola ulertzen duzu elkarbizitza?**

Elkarbizitza pertsonen arteko erlazioa da, eta ez badugu zintzo jokatzeko ezinezkoa da pertsonen arteko erlazioa ona izatea. Herri honetan bizi izan duguna ez da urte batzuetako kontua, eta ezin da ahaztu. Derrigortuta gauden honetan lan egitera, hori da gure betebeharra. Ixilean eta zarata handirik atera gabe

lan egingo dugu. Elgoibar ez da herri mediatikoa, eta alde horretatik errazagoa da hemen lan egitea Donostian baino, han egiten den ia dena medioetan iristen delako. Eta medioek askotan informatzeaz gain, iritziak eman eta prozesuak bideratu egiten dituzte, eta hori oztopo bihurtzen da.

**“Ez badugu zintzo jokatzeko ezinezkoa da pertsonen arteko erlazioa ona izatea”**

## **Memoria historikoa egitea ezinbestekoa da aurrera egiteko. Zein asmo dauka Udalak horren gainean?**

Atzoko eguna memoria da. Eskertzekoa da Elgoibar 1936 taldea egiten ari den lana, garai hartako gertaerak azaleratzeko. Gainera, Aranzadi bezalako elkarte adituekin ari dira lanean, eta lan handia egiten dihardute. Baina memoriaren azterketa gaur arte egin behar da, bere osotasunean. Memoria ez dira gertaera soilak, baizik eta zergatik gertatu ziren, gizaki haiek zer pentsatzen zuten, nola jokatzeko zuten, zein balore zituzten jakitea... Hori guztia aztertu behar da memoriaren hitz egitean. Ez du balio garai hartan gertatu zena erabiltzea gero etorri zena justifikatzeko. Giza eskubideen bortxaketa garai hartan salatu egin behar zen, eta gaur egun ere salatu egin behar da. Memoriaren hitz egiten dugunean, Irujo jaunaren hitzak etortzen zaizkit beti gogora: “Aberriarengatik norberak bizia eman dezake, baina ez bestearena kendu”. Garai hartako euskaldunek, eraso baten aurrean, beraiena zena defendatzeagatik borrokatu zuten. Eta beraiena defendatzeagatik beraien eskubideak bortxatuak izan ziren. Onartu beharra dago ETAk pertsonen giza eskubideak bortxatuz bideratu duela bere jardueran. Bizikidetzarako ezinbestekoa da errespetua, eta gauza guztien gainetik giza eskubideak bermatu behar dira.

**Biktimak ezinbestekoak dira prozesu honetan, baina bake konferentziaz kritikoki agertu dira asko. Zer iruditzen zaizu biktimek, batzuek eta besteek, erakutsi duten jarrera?**

Biktima guztiak biktimek dira, baina ezin dira denak zaku berean sartu. Batzuek kontra agertu ziren, eta besteak alde. Ez dugu ahaztu behar tokiko ikuspegitik landutako konferentzia zela eta ez zela gatazka konpontzeko foro bat. Hemen hiru instituzio maila nagusi daude: tokikoa, lurraldekoa eta erkidegokoa, eta gero estatukoa. Herritik ari garenok argi izan behar dugu gure egitekoa ez dela erkidegoko gatazka konpontzea, baizik eta maila lokalean bizikidetzarako bideak jartzea, giza eskubideen urraketa erabat sahiesteko.

## **ETAk borroka armatua utzi zuenean, bizikidetzarako aro berri bat zabaldu zela esan zuten askok. Zure ustez hala izan zen?**

Bere jardunari utzi dio, baina ETA hori dago oraindik. Estatuaren ere hori dago, eta beste eragile asko ere bai: terrorismoaren biktimek aldeko erakundeak, esaterako, bai aldekoak zein kontrakoak. Alderdi politikoki batzuek ere ez daukate gai honen aurrean posizionamendu argi bat, beste batzuek bai... Baina argi dago egunen batean denok jarri beharko gara mahaian baten bueltan. Hori iritsiko da, baina horretarako lan egin behar dugu, bakoitzari tokatzen zaion mailan. Giza eskubideak bortxatu ostean, barkamenaren eta errekonozimenduaren fasea iristen da.

## **Iragana, oraina eta etorkizuna aipatzen dira bizikidetzaren planean. Zein lanketa egin behar da plano bakoitzean?**

Iragana ezin da ahaztu. Jendeak arazo handiak ditu, eta aro hori gainditzeko gogoia dauka, baina iragana kontuan izan behar da oraina ulertzeko. Eta etorkizunerako daukagun erronka herri hau berradiskidetzaren asmatzea da.

## **Posible da herri hau berradiskidetzea?**

Bai, baikorra naiz horretan, eta ez daukat inolako zalantzarik. Errespetuan oinarritu behar dugu bizikidetzaren. Oztopoak izango ditugu bidean, oztopo asko, bai alde batetik, bai bestetik: Estatuaren dela, ETA dela, epaiketak, atxilotetak... Nik argi daukat ETA betirako desagertu behar dela, ez diolako inori onik egiten. Ez Euskadiri, ez presoari, ez herritarrei... Inori. Eta hori batzuetan aitzakia da oztopoak jartzeko. Era berean, Arnaldo Otegi preso egotea ere bizikidetzarako oztopo bat da. Oztopoak gainditzeko asmatzen badugu, lortuko dugu herri hau berradiskidetzea.

## Erretratu zaharra



1959

Aste honetako erretratu zaharra Begoña Blazquezek ekarri du BARRENERA. 1959ko argazkia da, Sargoateko iturriaren inaugurazio egunean ateratakoa hain zuzen ere. Jende asko joan zen egun hartan Sargoatera, eta egun "handia" izan zen elgoibartarrentzat. Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkian agertzen direnak. **Goian, atzean:** Pako Igartua (†). **Behean:** Santiago Gomez (†), Ascension Gomez, Primitivo Martinez (†), Rogelio Vela (†), Begoña Blazquez, Juan Mari Txepetxa (†).



## ERRETRATU ZAHARRAK BEHAR DITUGU!

BARRENen argitaratzeko  
erretratu zaharrak baldin badituzu,  
eskertuko genizuke gure erredakziora ekartzea.  
Nafarroa Plaza 2, behea. 943 744 112 (Ainhoa)

## Arnaldo Otegi eta 'Bateragune auzian' kartzelatutako guztiak libre lagatzeko eskatu dute Elgoibarren

Pernando Barrenak salatu zuen "bide baketsuen alde egiteagatik" dituztela preso auzipetuak

Jendetza handia batu zen zapatuan Arnaldo askatu, politika askatu herri ekimenak deitutako manifestazioa. Arnaldo Otegi ezker abertzaleko bozeramailea eta berarekin batera *Bateragune auzian* kartzelatutako Rafa Diez, Sonia Jacinto, Arkaitz Rodriguez eta Miren Zabaleta berehala libre lagatzeko eskatu zuten, Espainiako Poliziak Donostian atxilotu zituenetik lau urte bete ziren egun berean.

Manifestazio buruan plataformako ki-deak joan ziren, *Lau urte bahituta. Arnaldo, Rafa, Sonia, Miren eta Arkaitz. Bostak askatu!* zioen pankartari eusten, eta atzetik, auzipetuen euren senideak, ezker abertzaleko hainbat ordezkari eta dozenaka eta dozenaka herritar. Kalegoen plazan hasi eta kalegoen plazan bertan bukatu zen manifestazioa, eta bidean, Arnaldo Otegiren etxe azpitik ere pasatu ziren.

Bukaeran, Pernando Barrena ezker abertzaleko ordezkariak hartu zuen hitza. *Bateragune auziaren* bidegabea salatu zuen Barrenak, eta esan zuen Otegi, Diez, Jacinto, Rodriguez eta Zabaleta mende-kuz dituztela kartzelan. "Bide baketsuen alde egiteagatik daude preso". Barrenak gogorarazi zuen Otegik eta gainerako auzipetuek bultzatu zutela norabide aldaketa ezker abertzalean, eta horren harira esan zuen *Bateragune auzia* bera "Estatuaren mendeku estrategia baten barruan" ulertu behar dela, aurreko astean Herrira mugimenduaren kontrako operazioa aipatuz. Aurrera egingo bada, herritarren indarrez egingo dela esan zuen Barrenak, eta txaloka erantzun zioten plazan bildutakoek.

2009ko urriaren 12an atxilotu zituzten *Bateragune auzikoak*, Baltasar Garzon Auzitegi Nazionalako epailearen aginduz, eta 2011ko irailaren 16an kartzelara zigitu zituzten. Lau urte egin dituzte preso, eta Auzitegi Konstituzionalak *Bateragune auziko* babes helegiteari buruz behin betiko erabakia hartzerako, zigor osoa edo ia osoa beteta edukiko dute bostek.





# AUBIXAK 40 URTE

**Iraungo badu, euskarak, gainerako hizkuntzek moduan, espazio berriak behar ditu. Ondo zekiten hori orain 40 urte ere. Eta halaxe, ikastolatik kanpo ere umeei euskaraz jarduteko tokia eskaintzeko, Aubia (Aubixa) baserria aterpetxe izateko atontzea erabaki zuten Elgoibarko Izarrako orduko zuzendaritza kideek. Zarauztik ekarri zuen ideia Juan Jose Araolazak. Dozenaka euskaltzalek jardun zuten proiektu hartan lanean, eta orduan jarritako zimenduen gainean eraiki zuten Aubixako proiektu pedagogikoa. Bihar, 40 urteren ondoren, proiektu hura handi egiten lagundu zuten guztiak omenduko dituzte, Elgoibarko Izarrak eta Aubixa Kultur Erakundeak antolatu duten eskertza ekitaldian. 18:00etan ongi-etorria egingo diete guztiei Aubixan, eta 19:00etan hasiko da eskertza ekitaldia. Ondoren, afari-merienda eta erromeria izango dituzte.**

**Ainara Argoitia**

**J**abetza pribatua”, dio Aubixa baserrirako bidegurutzean dauden kartelak. “Ez da inondik inora kartelik egokiena, baina gaur egungo pikareskak hori jartzera behartu gaitu. Aubixako atea, baina, zabalik dago nahi duen guztiarentzat, gaur egun Aubixa dena, herriari esker delako”, zehaztu du Maritxu Loiolak. Zabalik daude ateak, bai atarikoa zein atzeko aldera ematen duen balkoikoa [Aubixak 40 urte egin aurreko egunetan egon zen BARREN han]. Idazle gazteak daude ostatu hartuta, eta haientzako ogitartekoak prestatzen dihardute sukaldian. “Bazkaritarako bina ogitarteko eta meriendarako beste bat”. Larregi iritzi dio begiraleak, baina baietz dio Maritxuk, gazteak jan egin behar duela. Aubixan bertan jaioa da Maritxu, eta bai bera eta baita Joxepa haren ama zena ere, dozenaka umeren

memorian bizi dira. Izan ere, zenbat ume eta begirale ez ote dira pasatu handik, 1973an Elgoibarko Izarrak “ausardia handiarekin” baserria alokairuan hartu eta ikastolako umeentzako aterpetxe bihurtu zuenetik.

Elgoibarko Izarrak alokatzea erabaki zuenean hutsik zegoen baserria. Azkeneko errenteroak, Ugarteburu familiakoak, kalera jaitsiak ziren ordurako, eta artzain bati emanak zizkioten lurak, errentan. Eta baserri huts hura, garai batean Olasoko parrokiarena izan zen XVI. mendeko etxe handi hura, euskara sustatzeko aterpe bihurtu zuten. Juan Jose Araolazak, sasoi hartan Elgoibarko Izarraren presidente zenak, ekarri zuen ideia Zarauztik. Garai hartan Zarauzko ikastolak etxe bat zuten Goiatzen, astebukaeretan umeak, gurasoak eta irakasleak joateko, eta bera ere sarri joaten zen hara. Araolazak hartueman handia zuen, gai-

nera, orduan Zarauzko ikastolako zuzendari zen Imanol Muruarekin, Elgoibarko Izarraren 40. urtemugaren harira egindako liburuan kontatzen duenez, eta halaxe, proiektu pedagogikoko hark liluratuta, Ikastolako batzordera eraman zuen gaia. Anjel Lertxundi eta Imanol Urbietia irakasleak ekarri zituzten Elgoibarrera, proiektu haren inguruko azalpenak ematera, eta konbentzitu zituzten guztiak.

Halaxe, ekin zioten lanari, borondatezko lanari. Dirua lortzeko, kartoia eta papera bildu eta saltzen jardun zuten dozenaka lagunek. “Barinagatik (Markina-Xemein) ekarritako furgoneta bat erabiltzen zuten, eta ostiraletan irteten ziren herritarrek, dendek eta enpresek lagatako kartoia batzera. Ezaguna zen furgoneta hura. Gero, kiloka saltzen zuten batutakoa, eta diru harekin egin genuen obra”, gogoratu du Maritxuk. “Elgoibar dena mobilizatu zen. Jende asko aritu zen Aubixan. Kortan pilatutako zimaurre ateratzen bakarrik zenbat neke hartu zuten!”. Antonio Albizu ibili zen arduradun eta Luis Ulazia, Ikastola eraikitzeko proiektua egin zuen bera, izan zuten aholkulari. Denen artean jarriz zuten itxuran etxe zati bat bada ere, eta prestatu zuten umeak hartzeko. Sanjoanetan hasi eta irailean ikasturtea hasi bitartean, hamabi eguneko egonaldia egiten hasi ziren eskola-umeak. Hamabi egun herritik aldentuta; hamabi egun, lagun-giroan. Guztira, lau txanda izaten ziren.

Ikastolako umeak ziren hasierako haiek denak. Geroago zabaldu zitzaizen eskaintza herriko gainerako ikasleei. Joxepa Ugarteburuk, Aubixa bertako alabak eta Maritxuren amak, eramaten zuen etxeko jira. “Zorionsu zen gure ama giro hartan. Aterpetxea zabaltzeko eskaintza jaso genuen garai hartan kalean bizi ginen, eta beraz, etxera bueltatzea izan zen hura guretzat. Zertara, eta euskara sustatzeko proiektu batean lan egitera. Euskaraz ere goza zitekeela, bizi zitekeela, sinetsi zuten Izarrakoek, eta aisialdia gozamenerako eta lagun berriak egiteko aldia izanik, aisialdia irabazi beharra zegoela hizkuntza normalizatzeko”, azaldu du Maritxuk. “Berritzailea zen proiektua. Zalantzarik gabe Aubixaren historian garairik politena izan zen hasierako hura”, gehitu du. “Euskaldun izatearen kontzientzia” zeukan jende hark guztiak, Maritxuren esanetan. “Zapalkuntza handia jasan genuen urteetan, eta euskara suspertu beharra geure ardura zela sentitzen genuen”. Errebeldia antzeko zerbait ere bazen haietako askorengan, urteetan euren ama hizkuntza zokoratu zuen sistemari aurre egiteko nahia.

## Kultur Ondare

Joan ziren urteak, baina, eta etxea ere “degradatu” zen. 1990ean, baina, Eusko Jaurlaritzak Kultur Ondare izendatu zuen, eta nahi eta ez, obrak egin behar izan zituzten Aubixan. “60 milioi pezetako inbertsioa egin genuen”, zehaztu du Maritxuk. Garai hartan Aubixaren eta Elgoibarko Izarraren arteko lotura eten egin zen, eta geroztik barnetegia da Aubixa, euskal girotze barnetegia. “Euskal Herri osoko taldeak etortzen dira orain, baina garbi daukat Aubixa gaur dena, Elgoibarko Izarrakengatik dela. Elgoibarko herriari esker gara, eta horregatik Elgoibarrek beti izan du eta izango du lehentasuna hemen”.

Etxearen erabilera aldatu zen 17-18 urtean, baina ez zen hori aldatu zen gauza bakarra izan. Gauza jakina da euskararen ezagupenean eta erabileran asko aurreratu dela, baina oraindik ere, asko dira jakin arren, euskaraz egiten ez dutenak. Euskaldun izatearen kontzientzia “apaldu” dela uste du Maritxuk: “Garai bateko egoera eta gaurkoa ezberdinak dira. Lehen, ekin beharra zegoen, eta orain, lasaitu egin ga-

ra”. Baloreak ere aldatu direla uste du, gizartea bera aldatu dela. “Zinbulu-zanbuluan ume bat jausten bada, gurasoak laster hasiko dira dirurik kobratzerik ba ote duten galdezka. Berdin txakur txiki batek umeari arrastada bat egiten badio ere. Egingo dionik ere ez du jakingo beharbada umeak, baina gurasoak bai, eta hasiko dira dirua nondik aterako asmatzen. Halakoxeak egin gara. Beldurtiagoak gara, eta garai batean baino baliabide gehiago izan arren, ez gara zorionsu. Tristeia da. Horrek guztiak, gehiago eduki nahi horrek, besteen aurrean ‘zer-bait’ izan nahi horrek, ez digu lagatzen zorionsu izaten”.

## Etapa berria, Innobasquen eskutik

Maritxuren gogoeta horrek badu zerikusirik Aubixak hasi berri duen etapa berriarekin. Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziak “baloreak galdutako gizarteak baztertutako” pertsonen laguntzeko proiektua abiatu du. Euren maila eta adinerako proposatutako eskola helburuak lortzen ez dituzten ikasleak, harreman-arazoak dituzten guraso eta seme-alabak, ezintasunen bat duten haur eta gazteak, afektibitate arazoak dituztenak, hiperaktibitatea edo bestelako trastornoak dituzten haurrak eta haien gurasoak... hartuko dituzte aurrerantzean Aubixan. “Egoera irauli behar dugu. Guraso askok eskolaren ardurapean laga dute haurra heztean, eta haien erantzukizuna ere bada. Gurasoak hezi behar ditugu, seme-alabak hezi ditzaten. Denok ez gara berdinak, ez dugu berdinak izan behar gainera, eta uste hori aldatu behar dugu”, esan du Maritxuk. Aitortu du erronka handiari heldu diotela, baina ez zen erronka txikiagoa izan orain 40 urte hartu zutena. Ilusioak argitzen du bidea, eta hortik badu nahikoa.

Erronka berri bati heldu diote, bai, baina hala ere, Aubixak ez dio euskal girotze barnetegi izateari lagako, Maritxuk zehaztu duenez. Bi egitekoak uztartuko dituzte. Aubixak bere-bereak dituen ezaugarriak eta baloreak eutsiko die aurrerantzean ere. “Atea zabal-zabalik izan dugu eta izango dugu beti nahi duen guztiarentzat”, esan du Maritxuk.





## OLGA GOMEZ Innobasquek zuzendutako CIE taldekoa

**Aubixak etapa berri bat hasten du Innobasquek koordinatutako CIE Adimen Emozionaleko Partzuergoaren eskutik — 113 erakunde eta 200 lagun elkartzen**

**dituen ikerketa komunitatea da, gaur egun Innobasquek zuzentzen duena—. Pertsonen garapen emozionala bultzatzeko proiektua izango dela aurreratu duzue. Zerk bultzatu zintuzten hau sustatzera, eta zertan datza zehazki?**

Programa honek helburu garbia du: pertsonen garapen emozionala indartzea, ikerketa eta parte-hartzea sustatzeko metodologiaren bidez. Pertsonak eta haien inguruak eraldatzen lagundu nahi dugu, era horretan inguruko garapen sozioekonomikoa eta pertsonen ongizatea hobetzeko. Biziizan sarri gertatzen den moduan, Maritxu, Aubixa eta gu ustekabearen elkartu ginen apirila aldera. Eibarko Aldatze ikastetxean alfabetatze emozionalaren inguruan martxan daukagun proiektu baten berri izan zuen Maritxuk, prentsaren bidez, eta bera jarri zen harremanetan Aldatzeko zuzendari Marisabel Albizurekin. Bilera bat, solasaldi bat, antzerako ezinegona, baliabide osagarriak eta kolaborazioarako bide berriak esploratzeko ilusioa elkartu ziren. Oinarrian hau xe dago: Hiru Zubia proiektu honekin ekintza eta programa berriak jarriko ditugu martxan, hala nahi duten pertsonen emozioak kudeatzen ikas dezaten. Aubixan gaur arte egiten dutenaren osagarri izango da hau.

**Maritxuk zioen ordua dela munduaren beste ikuskera bat azaleratzeko. Ordua dela norbanakoaren duintasunak lehen zuten balorea hartzeko. Ez du ematen egiteko erraza denik bizi garen gizarte honetan. Zeintzuk dira indartu nahi dituzuen baloreak? Zergatik horiek, eta zergatik Aubixan?**

“Badakit munduan ikusi nahi duzun aldaketa zein den”, zioen Ghandik, eta iruditzen zait ondo ilustratzen duela guk sustatu nahi duguna. Ezin dugu mundua bere osoan aldatu, baina, nahi badugu, aldaketa txikiak susta ditzakegu gure jokabideak eta ohiturak aldatuta. Familiarteko harremanak, lanekoekin ditugun jokabideak, lagunekin edota bizilagunekin ditugun harremanak, herritarren parte-hartzea... azter ditzagun horiek guztiak, amesten dugun aldaketa hori sustatzeko. Inork ez dio erraza izango denik. Momentu zaila bizi dugu, eta geure buruarekin zintzoak izatek eta geure kontradikzioak onartzeki hasi behar dugu. Kooperazioaz ari gara guztiok, baina nola hitz egin dezakegu taldean eraikitzeaz individualismoa gailentzen den sasoiari? Zeinek jarri nahi dio muga informazio gaindosiari? Egia da informatuta egotea ona dela, baina informazioaren gaindosi horrek zail jartzen digu gero dauzkagun aukeren artean aukeratzeko. Zeinek egiten die uko aurrerapen teknologikoei? Zeinek egiten die uko urrutikoengandik gerturatzen eta gertuko pertsonengandik urruntzen gaituzten aurrerapen teknologikoei? Zein gelditzen da pentsa-

tzer lan-martxa frenetikoa izatera behartuta gaudela sinistarazten digun gizarte honetan? Nola izan baikorra egoera ekonomiko eta politikoa animoz hondararuta gaituen garai hauetan?

Bi aukera dauzkagu: geldi gelditu eta aieneka bizi, edota esnatu eta zezenari adarretatik kolpe egin eta egoera hori iraultzeko lan egin. Aubixa leku estrategikoa da Debabarrenean. Leku egokia da pertsonen gogoetarako, ikasteko, kolaborazioarako eta bizi duten egoera profesional eta sozialari aurre egiteko bide alternatiboak bilatzeko.

**Idealizatzen hartuko zaituztete askok. Zein metodologia jarraituko duzue?**

Idealistak? Denori interesatzen zaigu zerk asaldatzen eta zerk motibatzen gaituen jakin nahi izatea eta sumintzen gaituzten egoeren aurrean lasai egoten edota arazoei irtenbidea topatzen ikasi nahi izatea. Lanera irribarrez joan nahi izatea, ezetz esaten jakitea hala nahi dugunean, geure irizpide propioak izatea, norbere buruarekin harro egotea, hutsegiteak onartzen jakitea, zentzumen guztiarekin entzuten jakitea, zer sentitzen dugun azaldu ahal izatea inori minik egin gabe, talde-lanean aritzeko gai izatea, egoera zailak gaintzen ikatea, la-

guntza eskatzen jakitea, ilusioa eta poztasuna transmititzen jakitea, helburu errealek ezartzea... guzti horiek denori interesatzen zaizkigun gauzak dira. Zer hori baino errealeago? Horretarako 2013-2014rako programa baten diseinuan ari gara lanean. Batetik, sentsibilizazio tailerrak egingo ditugu, jendeak ikus dezan zelako harreman estua dagoen sentitzen dugunaren, pentsatzen dugunaren eta egiten dugunaren artean. Adimen emozionala ulertzeko oinarritzeko ikasgaiak emango ditugu, emozio toxikoak detektatzen ikasiko dugu, eta bizi-zaia ohitura osasungarriak hartzen. Gura-

soentzako tailerrak, adimen altuko seme-alabak dituzten familientzakoak (Aupatuz), lankideen arteko harremanak hobetzeko tailerrak, edota langabezia daudenentzako edo gizarteak baztertuta dituenentzakoak ere (Aktivate programa).

**Emozioen munduari, eta bereziki komunikatzeko eta entzuteko gaitasunari, eta talde-lanari aparteko garrantzia eman nahi die Maritxuk. Zeini zuzenduta dago emozio barmetegia delako esperientzia hau?**

Zehazki, enpresa txiki eta ertainetako eta elkarteetako jendearentzat da. Bost sesio dira guztira, eta autoezagutza, emozioen kontrola, autonomia, komunikazioa, talde-lana... gaiak landuko ditugu.

**Noiz zarete Aubixan lanean hastekoak?**

Uztailetik 2013-14rako programa zehazten dihardugu: edukiak, baliabideak, agenda... lotzen ari gara. Adimen handiko haurrentzako programa, Aupatuz delakoa, martxan daukagu dagoeneko. Orain Debabarrenako eragileekin hartuemanetan gaude, sinergia eta balizko kolaboratzaile bila. Interesa duten pertsona eta erakundeekin jakin dezatela zabal-zabalik gaudela. Maritxuk dio Aubixa beti izan dela gure ireki bat, eta halaxe izaten jarraituko du.

**“Ezin dugu mundua bere osoan aldatu, baina nahi badugu aldaketa txikiak susta ditzakegu”**

## ‘Atzera begira, aurrera egiteko’ solasaldia eskainiko dute eguaztenean Lorea Agirrek eta Unai Iturriagak

Udalak eta Elgoibarko Izarrak antolatutako hitzaldi zikloko azken saioa izango da

**D**atorren astean amaituko da Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatutako hitzaldi zikloa, Lorea Agirre kazetari eta antropologoaren eta Unai Iturriaga bertsolariaren arteko solasaldiarekin. Euskararen normalizazioaren alde orain arte izan eta egin duguna baloratu eta egiteko daukaguna irudikatuko dute. Iturriagak jarritako puntuei erantzungo die Agirrek, eta besteak beste, hizkuntza ekologia, euskaldun izatearen kontzientzia, justizia soziala, minorizazioaren ajeak edota identitatea izango dituzte hizpide. Euskara normalizatzeko edo euskararen gune hegemoniko berriak sortzeko aukerez eta erronkez mintzatuko dira. Solasaldia Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da, 19:00etatik aurrera.



### Kike Amonarrizen saioa

XXI. mendeko euskaldunez berba egin zuen Kike Amonarrizek eguaztenean. Euskararen egoera eta euskaldunon

tipologiaz berba egin zuen, zer izan ginen eta zer garen hobeto ulertzeko. Kultur Etxeko hitzaldi gela bete egin zen Amonarrizen saioan.

## Euskararen nazioarteko eguna antolatzeko bigarren bilera egingo dute urriaren 22an



Euskararen Eguna elkarlanean antolatzeko lehen bilera egin zuten joan zen astean Elgoibarko hainbat eragilek eta norbanakok. Abenduaren 3an egin daitekeen aritu ziren, eta ideia batzuk ere lotu zituzten, baina ekimena guztiz zehaztea hurrengo bilerarako laga zuten, herritar gehiagoren ekarpenak jaso nahi dituztelako. Bigarren bilera urriaren 22an izango da (martitzena), 18:00etan, Kultur Etxeko sotoan. Herritar guztiei egin diete bileran parte hartzeko deia.

### Udazken Festa egingo dute bihar, Kalegoen plazan

Atxutxiamaiak antolatuta, Udazken Festa egingo dute bihar, Kalegoen Plazan. HH2tik LH2ra arteko umeentzako jolasak eta txokoak prestatu dituzte, udazkenari ongi-etorria emateko. 11:30ean hasiko da.

### Bideo-forum saioa, gaur, Kultur Etxeko hitzaldi gelan

Udaleko Gizarte Ongizate Sailak eta Agifes elkarteak bideo forum saioa antolatu dute gaur gauerako. *Elling* filma ikusi eta landuko dute. 2001eko filma da. Petter Næss zuzendari norbegiarrak egindako pelikula honetan arazo psikiatrikoak dituzten pertsonen gaia jorratzen da. Bi urtez ospitalean egon ostean, eguneroko bizitzari aurre egiteko prest dago Elling. Ohikoak diren gauzak egiten ikasi beharko du berri. 18:30ean hasiko da saioa, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## Kalamua inguruko trintxerak ezagutzeko irteera antolatu dute biharko Elgoibar Ondare Kulturalak eta Morkaikok

Arraten hasi eta Kalamuako gainean bukatuko dute bost bat orduko ibilaldia

**E**lgoibarren 1937ko irailaren 21ean sartu ziren Francoren tropak eta bi-hiru egun beranduago lehenengo borroka izan ziren Aiaastia, Urkaregi eta Kalamua inguruan. Kalamuetako posizioetan ehun metroko distantziara jardun zuten borrokan batzuek zein bes-teek zazpi hilabetez. 77 urte joan dira ordutik, baina gerra haren gordinaren aztarnak egon badaude oraindik. Hain justu ere, horietan ikus-teko irteera antolatu dute Morkaikok eta Elgoibar Ondare Kulturala taldeak, elkarlanean. Jon Etxezarraga, Intxorta 1937 kultur elkarteko iker-lariak, emango ditu azalpenak.

Arraten hasiko dute ibilaldia 9:00etan, baina 8:30ean batuko dira Elgoibarko Aita Agirre plazan ibilaldirako izena emandako guztiak, elkarrekin joateko. Jon Etxezarragak BARRENI azaldu dionez, bost bat orduko ibilaldia izango da, Arraten hasi eta Kalamuako tontorrean amaituko dena. Bidean, 1936ko gerrako hainbat aztarna aztertu eta landuko dituzte. Krabelin, Aizketa, Akondia, Garagoitxi eta Kalamua inguruko bazterretan errepublikanoek nahiz Francoren tropek eraiki zituzten trintxeren, kanpamenduen eta babeslekuen berri emango die Etxezarragak. “Ikusi, berez, gutxi ikusiko dute, aztarna guztiak ia desagertu direlako, baina argazkiz lagunduta, saiatuko naiz haiek ikustarazten”,



aurreratu du gidariak berak. Gerra irabazi zutenek jasotako hainbat parte eta anekdotaren berri emango die, eta baita urteotako ikerketa lanaren ondoren, jasotako hainbat testigantzen berri ere. “Interesa pizten saiatuko naiz, gure historia gertukoena hori delako”, esan du.

## Berlingo hiriarri buruzko argazki erakusketa antolatu du Ongarri argazkilari taldeak

Erika Barahona (Bilbo, 1969) eta David Hornback (Los Angeles, 1962) argazkilarien lanak jarriko dituzte ikusgai Kultur Etxean, hilaren 17tik 31ra bitartean. Bi argazkilariak senar-emazteak dira, eta elkarlanean eginiko estreinako lana izan da honakoa. Berlingo harresia bota ostean, 90eko hamarkadan Alemaniako hiriburuan eginiko argazkiak izango dira. Hiri berberari buruz, bakoitzak bere ikuspegia erakutsiko du, erretratuetan.



### Musika elektronikoari buruzko jardunaldia gaur, Kultur Etxeko sotoan

Khris Rios eta B. Gutierrez DJek musika elektronikoari buruzko jardunaldia eskainiko dute gaur, Kultur Etxeko sotoan. Musika elektronikoaren ekoizpenerako hastapenak erakutsiko dituzte. Saioa doan izango da, eta 14 urtetik gorako gazteak joateko gomendioa egin dute. 18:30ean hasiko da saioa eta bi ordu iraungo ditu.

### Kantu-dantza kalejira, gaur arratsaldean

Elgoibarko Kale Kantariak, Txistulari taldeak, Inazio Bereziartua musika eskolak eta Haritz dantza taldeak kantu-dantza kalejira antolatu dute gaur arratsalderako. Kalegoen plazan batuko dira 19:00etan, eta herriko kaleak girotuko dituzte kantuan eta dantzan. Antolatzaileek herritar guztiei egin diete ekitaldian parte hartzeko deia.



## Jorge Gonzalezek irabazi du San Pedroko Igoera, eta Iban anaiak egin du bigarren

Guztira 52 lagunek hartu zuten parte lasterketan

**G**onzalez anaiak erraz gailendu ziren zapatuan San Pedroko Igoeran. Iban anaia joan zen lasterketa buruan, baina azkeneko metroetan anaiaren zain gelditu eta biak batera helmugaratu ziren. Epailleek, baina, Jorge, bi anaietan zaharrena, jo zuten irabazletzat. Ruber Merino sailkatu zen hirugarren, irabazlearengandik hamar segundora. Guztira, 52 txirindularik parte hartu zuten lasterketan.



## Cintia Martinez iruñearrak irabazi du Idotorbeko rolieski igoera



Zapatuan jokatu zen Idotorbeko rolieski igoera eta aurrenekoz neska bat gailendu zen: Cintia Martinez iruñearra. Guztira sei lagunek parte hartu zuten, tartean hiru elgoibartarrek: Iker Leonardok, Arkaitz Irureta eta Iñaki Ulaziak. Irabazleak 26 minutu eta hogeita hamar segundo behar izan zituen Kalegoen plaza-tik Idotorbera arteko bidea osatzeko, eta errekorra ezarri zuen emakumezkoetan. Iker Leonardo elgoibartarra sailkatu zen bigarren, hamabi segundora, eta denbora bera egin zuen Arkaitz Iruetak ere.

## SAILKAPENA

1. Jorge Gonzalez	15:00
2. Iban Gonzalez	15:00
3. Ruben Merino	15:11
4. Victor Cordon	15:11
5. Pablo Zabala	15:17
6. Joseba Egaña	15:17
7. Ramon Garcia	15:17
8. Carlos Rodriguez	15:17
9. Azibar Iraolagoitia	15:30
10. Iñaki Pelaió	15:30
11. Xabier Egaña	15:43
12. Jose Mari Fernandez	15:57
13. Ibai Konde	16:01
14. Toni Cid	16:01
15. Iñigo Gorosabel	16:11
16. Iker Goikoetxea	16:28
17. Iñigo Ortuoste	16:35
18. Igor Rey	16:55
19. Jose Felix Iglesias	16:55
20. Raul Cid	17:01
21. M. Lopezosa / M. Hernandez	17:12
22. Enekoitz Elorza	17:15
23. Xabier Saizar	17:15
24. Enrike Astigarraga	17:25
25. Raul Aldalur	17:32
26. Aitor Hernandez	17:40
27. Jokin Basurto	17:40
28. Jose Juan Barrenetxea	17:45
29. Aitor Romera	17:45
30. Javier Torquemada	17:45
31. Jose Antonio Agote	17:55
32. Iban Gurrutxaga	17:55
33. Ignacio Diaz	17:55
34. Juan Manuel Sobradero	18:06
35. Iban Rogel	18:23
36. Andoni Etxeberria	18:40
37. Xabier Elgezua	18:50
38. Gorka Zabala	19:35
39. Lucio Okamika	19:35
40. Pedro Garitagoitia	19:35
41. Raul Santamarta	19:53
42. Antonio Lendinez	19:58
43. Eneko Cerezo	19:58
44. Ricardo Huidobro	20:30
45. Julen De Blas	20:44
46. Sergio Galindo	20:59
47. Axier Basurto	22:01
48. Beñat Bollar	22:01
49. Jokin Lasarte	24:10
50. Orkatz Amutxastegi	24:10
51. Oscar De Diego	24:10
52. Alberto Matute	24:10
53. Mike Gibbons	24:50
54. Iosu Etxeberria	24:50

## 402 mendi-bizikleta zalek parte hartu zuten domekan Debabarrena BTT martxan

Orain arteko ediziorik jendetsuena izan da aurtengoa

**E**guraldia lagun, 402 lagun batu ziren domekan Mintxetako irteera gunean, Debabarrena BTT martxa egiteko, eta antolatzaileek jakinarazi dutenez, orain arteko ediziorik jendetsuena izan da aurtengoa. Aurreko urteetan bezala, parte-hartzaileek bi ibilbide izan zituzten aukeran, bata 25 kilometrokoa, eta bestea, 45 kilometrokoa. Zailtasun handikoa lehena eta



oso handikoa bigarrena. Bi ibilbideak ongi markaturik zeuden, seinale eta baliza desberdinekin, eta indarrak berreskuratze aldera, hainbat anoa postu ipini zituzten antolatzaileek ibilbideko puntu estrategikoe-tan. Probaren amaieran hainbat sari banatu zituzten partaideen artean. Debegesa Garapen Agentziak eta Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak eskualdeko BTT klubet laguntzarekin antolatutako ekimena da Debabarrenako BTT martxa, eta antola-

tzaileek eskerrak eman dizkiete antolakuntzan lagundu duten boluntarioei. Urtero 50 bat lagun aritzen dira lanean, besteak beste, Elgoibarko Atletismo Kluba, Kisale, Bikeibar, Debamatika, Ameikutz, Debemen, eta beste hainbat norbanako. **Argazki gehiago:** [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net)



## Anboton irabazita, Kilometro bertikalen Lafuma zirkuitua irabazi du Iñigo Larizek bigarrenoz



Anbotoko Kilometro bertikalean irabaztera irtengo zela agindu zuen Iñigo Larizek, eta bete zuen hitza. Kilometro bertikalen Lafuma zirkuituko hirugarren eta azken proba zen zapatukoa, eta aise gailendu zen. Kontuan izanda zirkuitoko aurreko bi probetan, Azpeitiko Zuzenien lasterketan eta Uharteko Arakilgo Zuzenien proban, lehenengo eta bigarren sailkatu zela, txapela janzteko faborito nagusia zen elgoibartarra, eta pronostiko guztiak bete egin ziren. 40 minutu eta 26 segundo behar izan zituzten Larizek zapatuan Anbotoko kilometro bertikala egiteko, eta hiru minututik gorako aldea atera zion bigarren sailkatuari: Anartz Etxeberriari. Oscar Baeza sailkatu zen hirugarren (43:45). Emakumezkoetan Maud Combarieuk (51:19) irabazi zuen, eta Nahia Quincocesek egin zuen bigarren (51:26). Larraitz Antxia sailkatu zen hirugarren (52:38).

# Espainiako Kopa Txapelketatik kanpo geratu da Concepto Egile

3-2 galdu zuten elgoibartarrek Zierbenaren kontra




**E**spainiako Kopako lehen kanporaketa jokatu zuen joan zen astean Concepto Egile areto futbol taldeak Zierbenan. Luzapeneko azken segundoan sartu zuen Zierbenak garaipenaren gola, eta 3-2 izan zen azken emaitza, etxekoen alde. Kanporaketa partida bakarrera jokatu da, eta, honenbestez, kopatik kanpo geratu dira elgoibartarrak. Partida hau ere, Zierbenaren aurka azken aldian jokatu dituzten partiden antzerkioa izan zela adierazi dute Concepto Egileko arduradunek: lehiatua eta emozioz bete. Elgoibartarrek bazekiten Zierbenan irabaztea zaila izango zela, harmailetako giroa aurka izango zutelako, besteak beste.

## Nesken eskubaloia talde beteteranoa sortu nahi dute

Eskubaloia gustuko duen neska talde batek noizean behin eskubaloia partidaren bat jokatzeko taldea osatu nahi du. Horretarako, herriko neskei egin die deia. Garai batean eskubaloian jokatu zuten edota eskubaloia gustuko duten neskek bildu nahi dituzte. Eguenetan batzen dira Ikastolako pistetan, 19:30etik 20:30era. Interesatuak hara agertu daitezke.

## 38 lagunek eman dute izena Mekatar xake txapelketan



Mekatar Xake Txapelketaren bigarren edizioa hasi berri da, 38 parte-hartzaileekin. Partidak domekatik eguenera bitartean jokatu dituzte, Iriondo tabernan. Iazko edizioan 36 lagunek hartu zuten parte, eta Jose Luis Larrañagak jantzi zuen txapela nagusien kategorian. 14 urtez azpikoetan, berriz, Markel Kerejeta izan zen onena.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 1 – Lagun Onak 1 (3. maila)  
Lazkao 1 – Elgoibar 2 (Erreg.)  
Hernani 5 – Elgoibar 1 (Neskak)  
Elgoibar 1 – Ordizia 0 (Jub.)  
Lazkao 0 – Elgoibar 0 Kad. A)  
Elgoibar 3 – Urola 3 (Kad. B)  
Zumaiako 2 – Elgoibar 0 (Inf. Txiki)

### PILOTA

Lagunak 10 – Hernani 22 (1. mailako nag.)  
Lagunak 22 – Gazteleku 16 (3. mailako nag.)  
Lagunak 13 – Aurrera Saiaz 22 (2. mailako kad.)

### PALA

Atxurbide 25 – Lagunak 21 (2. mailako nag.)  
Mundarra 24 – Lagunak 25 (2. mailako nag.)

### ARETO FUTBOLA

Laskorain B 1 – King-Kong Elg. 5 (Jub.)  
Pinseque 4 – Concepto Egile Elg. 4 (2B)

### ESKUBALOA

Lauko Elg. 22 – Logroño 30 (Sen. nesk.)  
Alcorta Elg. 26 – Pulpo 22 (Sen. mut.)  
Gabaz Elg. 28 – Urola 19 (Sen. mut.)  
Eibar 26 – Beristain Elg. 26 (Jub. mut.)  
Astigarraga Elg. 22 – Kukullaga 21 (Jub. nesk.)  
Tecnifuelle Elg. 26 – Kukullaga 29 (Kad. nesk.)  
Hondarribi 29 – Pneumax Elg. 31 (Kad. mut.)  
Egia 33 – Txarriduna Elg. 17 (Kad. mut.)  
Murgil Elg. 18 – Ereintza 26 (Kad. nesk.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 19  
16:30 Elgoibar – Ordizia (Erreg.)  
15:30 Elgoibar – Tolosa (Nesk.)  
12:00 Elgoibar – Ordizia (Kad. A)  
10:00 Elgoibar – Eibar (Inf. Txiki)

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 19  
9:30 King-Kong – Intxaurren (Jub.)

### ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 19  
11:15 Cometel Elg. – Marina (Inf. nesk.)  
12:30 Aterpe Elg. – Zarazpe (Inf. nesk.)  
16:00 Pneumax Elg. – Arrasate (Kad. mut.)  
19:00 Beristain Elg. – Corazonistas (Jub. mut.)  
Domeka, 20  
9:30 Bankoa Elg. – Deca Elg. (Inf. mut.)  
10:45 Beristain Elg. – Corazonistas (Sen. mut.)

### PILOTA (Ikastolan)

Barbakua, 18  
Pala  
22:00 Lagunak – Altzatarra (2. mailako nag.)

## LANA

### ESKAERA

- Unibertsitateko ikasleak klase partikularrak ematen ditu. Taldeka edo banaka. DBH eta LHko ikasleentzat. ☎ **657 486 811**
- Magisteritzako ikasleak klase partikularrak ematen ditu. LH eta DBH1 eta 2 mailetan. ☎ **634 588 605**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Interna edo orduka. Erreferentzia onak. Geriatria ikasketak. Umeak zaintzeko ere prest. ☎ **669 311 385**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Interna edo orduka. Erreferentzia onak. Geriatria ikasketak. Umeak zaintzeko ere prest. ☎ **632 253 170**
- Neska arduratsua lanerako prest. Interna edo orduka. Esperientziaduna. ☎ **636 581 194**
- Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Egun erdiz zein orduka. ☎ **680 121 252**
- Emakumea lan bila: etxeko lanak egin edo nagusiak zainduko lituzke. Interna edo orduka. ☎ **648 815 264**
- Emakumea eskaintzen dan lanerako: adinekoak zaintzen, garbiketarako egiten edo tabernan egingo nuke lan. ☎ **690 199 860**
- Emakumea lan bila. Umeak eta nagusiak zaintzen esperientzia handia. ☎ **686 052 084**
- Gizonezkoa eskaintzen da lanerako. Nagusiak zaintzen esperientzia. Garbiketarako ere egingo lituzke, garaje, bulego nahiz tabernetan. ☎ **692 332 871**

- Alemanierazko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina, ikasleen trukea eta azterketen prestaketa. EOI. ☎ **670 793 312**
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko. ☎ **672 076 852**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. ☎ **686 052 084**
- Ingeles eskolak ematen ditut, etxez-etxe. ☎ **943 744 062 / 680 319 002**
- Emakume arduratsua lanerako prest. Garbiketara lanetan esperientzia handia. Portalak, tabernak, etxeak, elkarteak... garbituko nituzke. Orduka. Gauzez lan egiteko prest. ☎ **696 583 671**
- Frantsesa, latina, euskara eta gaztelarako klaseak ematen ditut. ☎ **617 114 185**
- Emakumea eskaintzen da lanerako. Nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko harrerarako edo zerbitzari lanerarako. ☎ **606 354 982**

### ETXEBIZITZAK

- Etxea alokatzen dut Elgoibarren. ☎ **650 809 790**
- Apartamentu eguzkitsua alokatzen da. Berria, hornitua. Oso egokia pertsona bakarrarentzat edo bikote batentzat. ☎ **629 628 661**
- Pisua alokatzen da. Bi logela, egongela handia, sukaldea, igogailua, terraza, ganbara. ☎ **646 581 666**

- Etxea salgai erdigunean. 91m2, dena kanpoaldera, igogailuarekin. Teilatua eta fatxada berritua. 143.000 euro. ☎ **609 141 312**

### GARAJEAK

- Garaje itxia alokairuan, Ikastola ondoan. ☎ **943 531 648 / 669 916 148**
- Garaje itxia alokairuan, Santa Klaran. ☎ **615 799 813**

### BESTELAKOAK

- Taxi lizentzia salgai, gama altuko autoarekin. Bezero poltsa handia. ☎ **630 884 181**

### KINTOAK ETA OSPAKIZUNAK

- Artetxe Behean bizi direnen eta bizi izan direnen afaria azaroaren 16an, Sigma jatetxean. Lehen deialdia, 19:00etan Viento Sur gastrotekan, eta bigarrena, 20:00etan Jai Alai tabernan. Interesatuak 45 euro sartu behar dituzte azaroaren 8rako, Kutxabank-eko kontu korronte honetan: **2095 5036 52 1068686269**
- 1988an jaiotako enafaria, azaroaren 9an, Karakate jatetxean. 19:00etan batuko dira, udaletxe azpian. 35 euro ordaindu behar dira, urriaren 13rako, kontu honetan: **2095 5036 50 9112978251**

**Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.**

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



**- Bizi naizen lekuan balkoiak oso egoera txarrean ditugu. Bizilagun batzuk margotu ere egin zituzten orain urte batzuk, eta azkeneko batzarrean, presidenteak esan zuen bizilagun bakoitzari dagokiola bere balkoia konpontzea. Jakin nahiko nuke zeini dagokion balkoien zaintza eta mantendu lana.**

Legearen arabera, balkoiak elementu komuna dira, fatxada den bezala (fatxadaren estaldura bera, leihoak..) Beraz, eraikin horretan bizi diren denei dagokien kontua da. Etxejabeen batzordeak balkoiak konpondu behar dira erabakitzen duenean, etxejabe guztiek ordaindu beharko dute, nork bere parte.

Hala ere, kontuan izan behar dugu elementu komun guzti horiek aldiro mantentze lanak egitea eskatzen dutela. Etxebizitzen gainera terraza iragazgaitzek, esaterako, arazo asko eman ohi dituzte. Erabilera pribatuko elementu komunak dira, eta halakoetan, jabeak zentzuz erabiltzeko betebeharra dago, azpiko etxekoari kalterik ez eragiteko.

**Gomendioa: Eraikina zaindu eta egoera onean mantentzeko behar diren obrak egitera behartuta daude bizilagunak legez. Lan horiek tekniko batek zuzendu behar ditu.**

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Kattalin**, 5 urte egin dituzulako. Hello Kittyren muxuak zuretzat. Aitaxo, amaxo, Joseba, aittitta Pedro eta amama Felisak.



• Gure **txapeldunak** 4 urte! Zorionak!



• Gure **Ainhitzek** 13 urte beteko ditu hilaren 21ean. Muxu handi bat, etxekoen partez.



• Zorionak, **txapeldun**, asteazkenean 6 urte potolo egin zenituelako. Muxu handi bat etxeko guztion partez.



• Zorionak, **Danel**, asteartean 8 urte egin zenituelako. Etxekoen partez, besarkada bat.



• Zorionak, **Aner!** Asteartean urtetxo bat! Elgoibarko eta Bergarako familiakoen partez, muxu bat.



• Zorionak, **Alba**, hilaren 21ean 6 urte beteko dituzulako. Muxu bat gurasoen, eta ahizpa Lauraren eta neba Diegoren partez.



• Zorion, **Trini**, gaur 89 urte egin dituzulako. Lagunen partez.



• Zorionak, **Unax**, 6 urte bete dituzulako. Gurasoen eta aittitta eta amamaren partez.



• Zorionak, **Nora!** Gaur 9 urte! Familiako guztion, eta bereziki, Aneren partez. Ondo pasa gonbitean!



• Zorionak, **Gouri** eta **Xenki**, aste honetan 3 eta 2 urte betetzen dituzuelako. Muxu handi bana Oinatz, Markel, Oxel, Aratz, Aimar eta Peruren partez.



• Zorionak, **amaxo eta Gorka**, urriaren 18an eta 24an 32 eta 2 urte beteko dituzuelako. Muxu handi bana familiakoen, eta bereziki, Maiaren partez.



Zoriondu ezazu **BARRENEN!**

**PREZIOAK**


- Erretratu bakarreko agurra **4€**
- Argazki bikoitza **6€**
- Hirukoitza **8€**
- Hiru lagunetik gorako taldeak: **12€**


**ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK**

- Erretratu bakarreko agurra **3€**
- Argazki bikoitza **5€**
- Hirukoitza: **7€**
- Hiru lagunetik gorako taldeak: **10€**

Argazkiak **martitzen eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, **12:00ak baino lehen**, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

Asteburu honetan  
**III. Just Dance txapelketa!**  
17:30etik aurrera.





Urriaren 23an  
**GURASO BILERA**  
ludotekan 19:00etan.

## 18 barixakua

### Aisialdia

17:30 Kiribilka

Elgoibarko Izarrak antolatuta, 2tik 6 urtera arteko umeentzako eta haien gurasoentzako egitasmoa. Kalegoen plazan.

### Musika

18:30 Musika elektronikoari buruzko jardunaldia

Musika elektronikoaren hastapenei buruzko saioa eskainiko dute Xhri Rios eta B. Gutierrezek. Kultur Etxeko sotoan.

### Zinema

18:30 Bideo forum

Agifes elkarteak eta Ongizate Sailak antolatuta, Elling filma ikusiko dute. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

### Kalejira

19:00 Kantudantza kalejira

Haritz dantzari taldeak antolatuta, Kalegoen plazan.

## 19 zapatua

### Mugikortasun astea

10:00 Merkatu berezia

Bizikleten bigarren eskuko azoka. Lekuederren.

### Aisialdia

11:30 Udazken festa

Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kalegoen plazan.

### Irteera

8:30 Kalamua-Akondiako trintxerak

Elgoibar Ondare Kulturala taldeak eta Morkaikok antolatuta. Nafarroa plazan batuko dira.

### Ospakizuna

18:00 Aubixaren 40. urteurrena

Ongi-etorriaren ostean, eskertze ekitaldia egingo dute, eta segidan afari-erromeria egongo da. Aubixa baserrian.

## 20 domeka

### Aisialdia

9:30 Mendi irteera

Kalamua Guraso Elkarteak antolatuta, Izazpi (967m.) mendira joango dira Herri Eskolako ume eta gurasoak. Sigmako aparkalekuan batuko dira.

### Musika

12:30 Udal musika bandaren kontzertua

Herriko Antzokian.  
- *La gran Evasión* (E. Berstein)  
- *Suite on russian dances* (T. Kenny)  
- *La vida es bella* (N. Piovani)  
- *Lau euskal kanta* (T. Aragues)  
- *James Bond suite* (J. Barry)

## 22 martitzena

### Elkarretaratzea

19:30 Epaiketa politikorik ez, libre. Elkartasunetik konpromisora.

Kalegoen plazan.

## 23 eguaztena

### Euskara

9:00 '30+10' mintegia

Enpresa munduko hizkuntzen kudeaketarako mintegia egingo dute IMHn.

### Hitzaldia

19:00 'Atzera begira, aurrera egiteko'

Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatutako hitzaldi zikloaren barruan, Lorea Agirrek eta Unai Iturriagak eskainiko dute hitzaldia. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

### Zinea

21:30 '39 escalones'

Iratxo tabernan.

## BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

## GUARDIAK

### Egunez

9:00 - 22:00

18 Fernandez  
19 Yudego  
20 Yudego  
21 Zabaleta  
22 Barrenetxea  
23 Ibañez  
24 Garitaonandia

### Gauetz

22:00 - 9:00

Yudego  
Yudego  
Yudego  
Barrenetxea  
Barrenetxea  
Etxeberria  
Garitaonandia

### Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

### Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

### Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

## ZINEA

### «Ahora me ves»

18, barixakua: 22:15  
19, zapatua: 19:00/22:15  
20, domeka: 19:00  
21, astelehena: 21:30

### «Monsters university»

20, egunea: 16:30

### «La mejor oferta» (Ongarri zinekluba)

24, egunea: 21:30  
25, barixakua: 19:00/21:30

Ahora me ves: Zuzendaria: Louis Leterrier. AEB, 2013. 115 min. Thrillerra. Aktoreak: Jesse Eisenberg, Mark Ruffalo, Michael Caine, Morgan Freeman, Isla Fisher, Woody Harrelson. FBIko talde batek Lau zaldunak izeneko lapurrak harrapatu nahi ditu. Magoak dira, eta bankuak atrakatzen dituzte, dirua beraien ikuskizunetako ikusleen artean banatzeko.

La mejor oferta: Zuzendaria: Giuseppe Tornatore. Italia, 2013. 124 min. Drama. Aktoreak: Geoffrey Rush, Jim Sturgess. Virgil Oldman gizon bakartia da. Artean aditua da, eta izen handiko gizona enkanteen alorrean. Sentimenduentzako denbora askorik ez dauka, baina egoera hori aldatu egingo da emakume gazte eta misterioitsu bat bere bizitzan agertzen den unean. Artelan batzuk saltzeko laguntza eskatuko dio, eta bizitza aldatuko zaio.

# A TZERA BEGIRA, AURRERA EGITEKO

*euskaldunon iraganaz eta etorkizunaz*

**Urriak 23, asteazkena:**

**Atzera begira, aurrera egiteko solasaldia**  
Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi-gelan  
19:00etan



Antolatzaileak:

ELGOIBARKO IZARRA 50  
KULTUR ELKARTEA



Babesleak:



## OSASUN GIDA



### OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:  
9:30-13:00  
16:30-20:00

San Bartolome, 10- Elgoibar  
Tel: 943 743 734

183\12

UZURI

- Optometria  
- Kontaktologia

Egunero:  
9:30-13:00 / 16:30-20:00  
San Frantzisko, 21

Elgoibar - Tel: 943 740 359

### HORTZ KLINIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala  
- Estetika  
- Kirurgia eta inplanteak  
- Ortodontzia: haurrak eta helduak  
- Protesiak: finkoak eta eraginak  
- Odontologia orokorra  
- Higienea eta prebentzioa  
- Periodontzia (entzien tratamendua)  
- Haurrentzako tratamenduak  
- PADI

Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre enparantza,  
5 behea - Elgoibar  
Tel: 943 530 053  
lekueder@infomed.es

### OTORRINOLARINGOLOGIA

183\12

UZURI

- Entzumen protesia  
**BERRIAI**  
- Tapoiak neurria (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)  
- Audiometriak  
- Audifonoak  
- Tonometria

Egunero:  
9:30-13:00/ 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel: 943 740 359

### FISIOTERAPIA

271\12

AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia  
- Eskuterapiak  
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)  
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 531 953  
Tel.: 669 565 745

177\12

fisi&más

Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea

- Esku-terapia.  
- E.P.I @ (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)  
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).

- Mesoterapia homeopati-koa:  
+ Traumatologia.  
+ Estetika (zelulitisa, es-triak)

Osasunerako ariketa agin-dua  
(Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

Entrenamendu gidatua

Pilates makinak  
(errehabilitazioa)  
3 pertsona gehien.

Txirindulariaren biomekani-ka (kalak, ergonomia bizikle-tan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.  
Tel.: 943 740 191  
667 953 628



**herritarrekin**  
martxan en marcha



 **Gipuzkoa**  
BERRIA



Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

## **NOLAKO AUTOBUS ZERBITZUA NAHI DUZU?**

Gipuzkoako Foru Aldundiak zurekin batera hobetu nahi du zerbitzua, eta horretarako 56 herritan bilera irekiak antolatu ditu. Internet bidez ere egin dezakezu zure ekarpena:  
[www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net).

## **PARTE HARTU ETA IRABAZI**

Parte-hartzaile guztien artean Mugi/Lurraldebus txartela kargatzeko 20 euroko bonoak zotz egingo ditugu.



**Gipuzkoa**  
BERRIA